

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

#### OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

## 1863

*123/2023 EBAZPENA, martxoaren 27koa, Gipuzkoako Osasun Mentaleko Sareko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Gipuzkoako Osasun Mentaleko Sarean Eskualdeko Erreferente Soziosanitarioen Eginkizunak beteko dituzten pertsonak izendatzen diren.*

Bat etorrira Osasun Sailaren eta Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren Euskadiko Gobernantza Soziosanitarioari buruzko abenduaren 7ko 150/2022 Dekretuarekin (2022ko abenduaren 22ko EHAAREN 243. zenbakian argitaraturakoa), zeinetan ezarri ziren gobernantza soziosanitarioaren lurralde-definizioa eta –artikulazioa, eta bereziki, haren antolamendu funtzionala, kontsulta- eta partaidetza-organoetan eta koordinazio soziosanitarioko figuretan oinarritzen dena.

Behin aztertuta abenduaren 7ko 150/2022 Dekretuaren 2. atala, lurralde-eremuaren eta kudeaketaren araberako koordinazio-figuri buruzkoa, eta bereziki, 45.3 artikulua, erakundeko profesionalen artetik, Erreferente soziosanitarioaren figura izendatzeari buruzkoa.

Gipuzkoako Osasun Mentaleko Sareko zuzendari-gerentearen martxoaren 8ko 101/2023 Ebazpenaren bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Gipuzkoako Osasun Mentaleko Sareko Erreferente Soziosanitarioaren funtzioak bere gain hartzen dituen pertsona izendatu zen.

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren Gipuzkoako Osasun Mentaleko Sarean Eskualdeko Erreferente Soziosanitario izendatzea:

- Asunción Lizarazu Escudero, Goierri-Urola Garaiko ESla.
- Leticia Díez García, Debabarreneko ESla.
- M. Asunción San Martín Arenaza, Debagoieneko ESla.
- Asier Lanchas Sanchez, Tolosaldeko ESla.
- Sandra Del Valle García, Bidasoko ESla.
- Leire Iban Gonzalez, Donostialdeko ESla.

Bigarrena.– Izendapenak ondorioak izango ditu 2023ko martxoaren 1etik aurrera.

Hirugarrena.– Jakinaraztea Ebazpen hau interesdunei eta Arreta Soziosanitarioko Zuzendari-tzari (Osasun Saila, Eusko Jaurlaritza).

2023ko apirilaren 19a, asteazkena

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkez dakioke Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari, hilabeteko epean, Ebazpena EHAAan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Donostia, 2023ko martxoaren 27a.

Gipuzkoako Osasun Mentaleko Sareko zuzendari-gerentea,  
ALVARO IRUIN SANZ.